

Haurren Igeriketa Eskola Berria 2012-2013

Eskolaren funtzionamendua

Eskolaren funtzionamendua azalduko dizugu hobeto ulertu dezazun nola lan egiten dugun zure seme-alabarekin eta zer nolako bilakaera izango duen gurekin den bitartean.


Hainbat maila antolatu ditugu igeriketa irakaskuntzaren teoriaren helburuak haurraren adinaren arabera lantzeko. Horretarako, 6 adiskide ditugu jardun honetan laguntzeko: zapaburua, ahatea, dortoka, itsas-txakurra, izurdea eta marrazoa.

Igeriketa Eskolaren helburuak

Igeriketa Eskola 3 urterekin hasten da eta 11 urterekin bukatzen da gutxi gorabehera.

Igeriketa Eskolako irakaskuntzak hiru helburu nagusi ditu:

- **EGOKITZAPEN ETAPA (0 maila) – Uretara egokitzea:** helburu nagusia urarekin lehen kontaktua hartzea eta sentazio berrietara egokitzea da.
- **HASTAPEN ETAPA (1, 2 eta 3 mailak) – Igeriketaren oinarriak:** helburu nagusia uretan bizirautea da, eta horrekin batera ingurunea ezagutzea, bertan flotatzea, arnas egitea eta propulzioa lantzea.
- **HOBEKUNTZA ETAPA (4 eta 5 mailak) – Igeriketa-gaitasunak:** helburu nagusia ingurune urtarra menperatzea, igeri egiten jakitea, batetik bestera mugitzea, objektuak jaso eta botatzea, bueltak ematea eta jauziak egitea da.



Mailak eta etapak

EGOKITZAPENA (3 urte): Taldeko jolas jarduerak burutzen ditugu ur ingurunea ezagutzeko.

ZAPABURUA – Egokitzearen 0. maila

HASTAPENA (4-7 urte): Jarduera orokorrak egiten ditugu eta jolasa da helburuak lortzeko bitartekoa.

AHATEA – Hastapeneko 1. maila

DORTOKA – Hastapeneko 2. maila

ITSAS-TXAKURRA – Hastapeneko 3. maila

HOBEKUNTZA (5-11 urte): Lana analitikoagoa eta espezifikagoa da igeriketari dagokionez, baina ez dugu inoiz baztertzen adin hauetan horren garrantzitsua den alde ludikoa.

IZURDEA – Hobekuntzako 4. maila

MARRAZOA – Hobekuntzako 5. maila

Maila bakoitza saioka antolatuta eta programatuta dago HIRUHILEKO batean maila bakoitzari dagokion ezagutza bereganatzeko helburuarekin. Etapa bakoitzaren amaieran ikasleak banaka ebaluatzen ditugu.

Kirol igeriketa

Hobekuntzako azken maila gainditu eta gero, igeri egiten jarraitu nahi dutenentzat eskeintza berria sortu dugu, "kirol igeriketa", 2 mailekin eta helburu hauekin:

- Igeriketa estiloak eta hauen teknikak hobetzea: krol-, bular- eta bizkar-igeriketa.
- Igeri eginez osasuna eta ondo pasatzeko helburua duten eskola-umeen eskariari erantzutea.

Jakin beharrekoa

- Haur bakoitzak bere gaitasun psikikoak eta psikomotorreak ditu, eta beraz, bakoitzak bere bilakaera izaten du.
- Jolasa beharrezko ikasketa-tresna da haurrentzat.
- Igeriketa-ikasketaren azken etapetan beharrezkoa da irakaskuntza analitikoa eta espezifikoa, baina alde ludikoa eta jostagarria baztertu gabe.

Izena ematea eta ordutegiak

Zure erosotasunerako, Igeriketa Eskolako ikastaro guztiek **HILEKO KUOTA** dute.

Eskatu informazioa M.A.Blanco Kiroldegian, zure seme-alaben matrikula bideratzeko egin beharrekoez eta epeaz.

Igeriketa Eskolako ordutegia **astelehenetik ostiralera bitartekoa da, 16:30etatik 18:45era eta larunbat eta igandetan, 10:00etatik 12:45era.**

Talde bakoitzak **astero saio bakarra, bi edo hiru** egingo ditu eta saio bakoitza **45 minutukoa** izango da.

2012-2013 NUEVA ESCUELA INFANTIL DE NATACIÓN

